



GAIZKA IROZ  
Jean Marie Le Pen-en hautagaitzari buruzko afixak Baionako kaleetan.

%3,64ekin. Ideia jakobinoek Euskal Herrian duten arrakastaren lekuko. Francois Bayrouren emaitzak ere ez ziren harri-garriak. Departamenduaren aurkari sutsu honi ez zitzaion baliatu jarrera hori erakustea eta zenbait urtez Pirineo Atlantikoetako kontseilu nagusiko lehendakari egotea. %10,67rekin, Frantziako emaitza baino de-xente hobe bada ere, Ipar Euskal Herrian, hautetsi zentrista ugari dagoen eremuan, zaplasteko galanta jaso zuen, nahiz eta Zuberoan eta Nafarroa Beherean nahiko gora ibili zen.

#### Boto zuria eta baliogabea bertzeetan baino goraxeago

Eskuin tradizionalaren hegemonia, zentristen eta ehiztarien laguntzarekin, ez dago arriskuan Ipar Euskal Herrian. Bigarren itzuliari begira, Chirac airez aire nagusituko da hiru herrialde horietan, are gehiago Le Pen baldin badu aurrean.

Baina egoera horrek boto zuri kopurua ere igoaraz lezake, Frantzia guztian bezala edo gehiago. Lehen itzulian, ordea, boto zuri eta baliogabeen kopurua ez zen oso handia izan. Departamenduan edota Landesetan baino pixkatxo bat handiago bakarrik. Landesetan eta Pirineo Atlantikoetan boto zuria edo baliogabea %3,9koa zen; Ipar Euskal Herrian, aldiz, %4,02koa. Orotara 5.682 lagunek hautatu zuten inoren alde ez agertzea. Nafarroa Beherean eta Zuberoan %4,77 eta %5,69 ziren boto zuria edo baliogabea eman zutenak. Horrek pentsaraz dezake bi gune horietan zela Batasunaren deialdia gehienik jarraitua izan, hala nola «demokraziaren» alde bozkatzea. Ihol-di, Ezpeleta eta Atharratzeko kantonamenduetan zuten, Batasunaren kalkuluen arabera, ekimen horrek arrakasta gehien lortu.

## Eskuin muturraren kontra mobilizatzeko dei ugari

Batasunak bigarren itzulian «demokrazia» bozkatzera deitu du eta ABk konsignarik eman ez eta manifestazioetan parte hartuko du

E. Bidegain | BAIONA

Herenegun arratseko ustekabe latza ezin digerituz ari ziren atzo Ipar Euskal Herrian ere. Aurpegi asko goibel eta solasgai bakar bat baizik ez zuten: Jean-Marie Le Pen eskuin muturreko hautagaia hauteskunde bigarren itzulira pasatu dela. Mobilizaziorako deiak jadanik hasi ziren zabaltzen. Gaur arratsaldeko 19:00etan erakunde ugari manifestazioa antolatuko dute Baionako Herriko Etxe aitzinean, «faxismoa eta arrazakeriaren aurka».

AB, Batasuna, Segi, LAB, Gerra Geldi komitea, AC! eta abarrek bat egin dute, jadanik, manifestazioarekin. Mobilizazio gehiagoren mentura bada ondoko egunetarako ere, maiatzaren 1ean, bereziki. Gaur arratsean sindikatu, alderdi eta erakunde hainbat bilduko dira horretaz gogoeta egiteko.

ABk, bere aldetik, FNaren kontrako «mobilizazio guztietan parte hartzeko» deia egin zuten atzoko prentsaurrekoan eta Le Penek «ez duela irabazi behar» argi utzi. Maiatzaren 5ean jokatu den bigarren itzulirako ez zuten boto agindurik eman, ordea. Abertzaleen artean bi jarrera gertatuko direla azaldu zuen Jean-Noel Etcheberri bozeramaileak. Honen iritziz, batzuek, Jacques Chiraci emanen diote boza, Le Peni bidearen mozteko. Bertze

#### 'DEMO'-AK

### Hiru 'Marianne' ebatsi dituzte igande goizean

*Demo*-ek ere umorea galdu zuten atzo. Igande goizean Kanbo, Hiriburu eta Mugerreko *Marianne*-ak ebatsi ondoan, bigarren itzulian «Maianaren alde bozkatzeko» deia luzatu nahi zuten. Atzo, ordea, hautagaitza hori «kendu» zutela jakinarazi zuten. *Marianne*-ek «errepublikaren baloreak ordezkatzeko» ditu. *Demo*-en agiriaren ustez, «balore horiek Euskal Herrian zangopilatuak dira, baina FNarenkin ehortziak izateko arriskuan daude bai Euskal Herrian, bai Frantzian, bai Europa osoan». *Demo*-ek Ez zuten bozkatzeko eskaerarik luzatu, baina «FNari bidea moztea» galdegin zuten.

batzuek ez dute onartuko eta boz zuria edo baliogabea emanen lukete.

Batasunak hasierako deialdiari eutsiko dio. «Demokraziaren» aldeko hautes orriaren joatea galdegin zuten hautesleei Xabi Larralde, atzo. Ipar Euskal Herriak ez duela estatu mailako emaitzetan era-

gingo azaldu zuen. «Testu-guru horretan, gure proiektu politikoaren azaltzen jarraitu behar dugu, herrien Europaren eta Europa sozialaren alde». Batasunak ez du «mirarik espero Chiracengandik. Gogoan dugu lehen ministro zen garaia, Pasquaren garaia. Badakigu zer espero dezakeen Euskal Herriak RPRren itzulerarekin», abisatu zuen Larralde.

Berdeek «zinezko arrisku bat ikusten dute» maiatzaren 5erako. «Eskuin muturrari bidea moztera» deitu zuen, «historikoki, bertze herri batean, nazismoa hautes-ontzietatik sartu baitzen». Max Brisson Miarritzeko kontseilari nagusi eta Chiracen sostengu taldeko kideak, eskuineko eta zentzoko indarren batasunera deitu zuen, «ezker porrokatuaren» aurrean.

#### Azalpenen bila

Berdeek iritziz, hauteskunde emaitza «injustua» da Jospinen gobernuak «lorpen sozial ugari» ahalbidetu baitu. «Ezker eta eskuina gauza bera direla diotenak» kritikatu zituen. Segiren ustez, aldiz, Psek «ez du alternatiba errealik ordezkatzeko, bere ildo eskuinaren berdin berdina baita». ABk ere alderdi honen «pentsaera neoliberal» salatzen, «kanporaketak, pribatizazioak, lan baldintzen txartzeak» eta abar aipatuz. ABk ez du onartzen ezker muturraren, Berdeen

#### ERREAKZIOAK

##### LAB

«Neoliberalismoa da benetako faxismoa. Beste mundu bat posible da»

##### BERDEAK

«Bozkatu dutenek, edo bozkatu ez dutenek aurpegi higuin garria eman diote demokraziari»

##### AB

«Inork ez du pentsatu behar hobetik baduenik ezker muturra, Berdeak edo PCri bozkaturik»

##### BATASUNA

«Jakobinismoa banalizatzearekin, eskuin muturraren igoera eragin dute»

##### SEGI

«Gure aldarrikapenak ozenago oihukatzen bultzatzen gaitu gehigarri faxista honek»

##### MAX BRISSON

(Miarritzeko kontseilari nagusia)

«Eskuina eta zentroaren arteko erakunde handi bat sortu behar da»

edo komunisten alde bozkatzeko kritikatzeko. Segik bezala, bi hautagaien artean, lehen itzulitik hautatu behar izatea «hauteskunde amerikarretara» lerratzea litzatekeela salatu zuten.

Jospinek «hitza jaten» duela eta Euskal Herrian ere hala gertatu dela salatu zuten alderdi abertzaleek. Batasunak tokiko zenbait sozialistari, «eskuin muturrekoekin eskuz esku Departamenduaren kontrako lana» eramatea leporatu zien. «Jakobinismoaren banalizatzearen» ondorioztat jo zuen Le Penen arrakasta.

Batasunak eta ABk Frantziako bozketa sistema ere salatu zuten. «Monarkia errepublikarraren ideia azkartzen» dutela salatu zuen Jean-Marc Abadie ABko kideak. Xabi Larralde proportzionaltasunaren baztertzeko, bi gehingoetan ez diren alderdiak instituzioetatik at uztea eragiten duela deitoratu zuten.